

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan guk pentsatutako ideia aurrera eramateko eskainiko dugun zerbitzua aurkeztuko dizuegu. Bakardadeari aurre egiteko elkarte bat sortu dugu; izan ere, arazo honi garrantzi handia ematen diogu gizarteak eragin duen gabezi handia delako. Gure helburua bakarrik eta baztertuta sentitzen diren nerabeei, ahal den neurrian, laguntza ematea da eta azken finean, hauek hobe sentiaraztea.

Gure enpresa pentsatzerako garaian, pertsona baten azalean jarri ginen, hain zuzen ere, arazo hau sufritzen zegoen nerabe baten azalean. Oso momentu txar batean zebilela ikusi genuenean eta arazoa geroz eta pertsona gehiago paraitzen dutela ikusita, konponbide bat ematea beharrezkoa zela pentsatu genuen. Horregatik, Donostiako Udaletxearekin harremanetan jarri ginen eta gure hasierako ideian elkarte Donostian sortzea pentsatuta genuenez, bertan izatea lortu dugu.




Gure lokala Donostian kokatzea erabaki genuen, eta arrazoi nagusia, hiriburu hau jende gehienarentzat leku erosoan izan daitekeela pentsatzen dugulako da; izan ere, ondoko hainbat herrietatik hurbilen dagoen lekua dela esan daiteke, beraz guztiontzat onuragarria izango da. Horrez gain, Donostiako eskualdean bizi direnak erraztasun gehiago dituzte, adibidez, autobusez joateko, egunean zehar hainbat ordutegi

eskaintzen direlako zerbitzu honetan.

Lokalaren barneari dagokionez, oso koloretsua izango da alaitasuna helarazteko. Bi gune nagusitan banatuko dugu, alde batetik, jolasak egiteko tokia, eta bestetik, denon artean eta banaka hitz egiteko tokia. Haien sentimenduak adierazteko gunean, aulkiak, mahaiak eta ordenagailu bat izango dugu. Beste gunean jolasak egiteko materiala, adibidez, baloia, margotzeko orriak, mahai-jokoak... izango ditugu.

Gure zerbitzuari dagokionez, hainbat ezaugarri izango ditu. Hasteko, zerbitzua dohian eskainiko dugu eta ordutegia 17:00-21:00tara izango da. Taldeak 10 pertsonekoak izango dira, horrela gure laguntza modu hobe batean eskaindu ahal izango dugu. Pertsonaren arazoaren larritasunaren arabera, laguntza egokitu egingo da, hau da, pertsonalizatua edo taldean. Taldean aritzera, guztiok, borobilean eseri eta bakoitzak bere esperientzia eta bizipenak azalduko ditu, horrela taldekideen artean, pixkanaka konfiantza areagotzen joango da. Etortzen diren bakoitzean eguneroko sentimenduak azalduko ditu bakoitzak, eta hainbat ariketa egingo



ditugu emozioak lantzeko. Bestetik, laguntza pertsonalizatua behar dutenei, hau da, arazo larriagoa dutenei, sostengu pribatua eskainiko diegu; nahiz eta, arazoa oso larria izanez gero, gure psikologoaren laguntzaz baliaituta erabiltzaile horren arazoari aurre egiten saiatuko gara. Ondoren, jolas batzuk ere prestatuko ditugu haien sentimentuak azalarazteko helburuarekin. Adibidez, “brilet” jokoan jolastuko dugu eta aurkako taldeko pertsona bat baloiarekin jotzean, eliminatuak bere emozioen bat adieraziko du. Mahi-jolasetan ere arituko gara, eta hauen bidez emozioak lantzea izango dugu helburua. Horrez gain, haien arazoak pixkat ahazteko eskurtsioak egingo ditugu momentu dibertigarriak izateko.



Enpresaren helburuetako bat euskara sustatzea izango da; izan ere, gaur egun, batez ere, nerabeen artean hizkuntza hau hitz egitearen ohitura galtzen ari da. Horregatik, nerabeekin euskarari garrantzi handia emango diogu. Hala ere, batenbatek euskara jakingo ez balu gaztelaniari aukera bat emango genioke. Nerabeen gehienek euskararekin hezi dela jakinda, pentsatzen dugu, ez diogula erderari erabilera asko emango. Beraz, honekin euskararen

alde borrokatzea lortuko dugu, eta gure erabiltzaileen artean euskararen erabilera areagotzea.

Donostiako Udaletxeari gure proiektua azalduko diogu, onartuz gero, hilabetero diru-laguntza bat emango digute eta gastuak ordaindu ahal izango ditugu. Horrela, gure zerbitzua guztiz dohainik eskaintzeko aukera izango dugu eta guztiontzat eskuragarria izango da. Edozein nerabe etor daiteke bakardadeari eta horren ondorioz dituzten arazoei aurre egiteko asmoz.

Azkenik, gure enpresaren lehiakideei dagokionez, esan dezakegu, gure elkarte hainbat alderditan bereizten dela zerbitzu bera eskaintzen duten enpresengandik. Bakardadearen aurka borrokatzen laguntzen duten enpresa gutxi horiek Espainian daudela kontuan hartuta, Euskadin gurea bakarria izatearen aldeko puntua da; izan ere, guk ere aukera hori ematen diegu urruneko leku batera joateko aukerarik gabe geratu diren edo laguntzarik jaso ezinik geratu diren pertsoneri. Gainera, Euskadin laguntza hori eskaintzen dugun bakarrak garela jakinda, ez dugu inolako lehiarik, hala ere, beti ahaleginduko gara gauzak ondo egiteaz hobekuntzak egiteko. Gure elkarte erabiltzaileekin izango dugun harremanean ere bereizten da; oso konfiantza sakona izaten saiatuko gara gaizki pasatzen ari direnekin. Gurasoekin ez zuten edo ez duten konfiantza hori lortzen ahaleginduko gara, bakoitzaren arazoan zentratzerako orduan. Beste arrazoi batengatik ere bereizten da gure enpresa gainerakoengandik: euskaraz eskainiko dugu zerbitzua. Lehen esan dugun bezala, euskara bermatzea izango da gure helburu garrantzitsuenetako bat, beraz, geure ezaugarri nagusienetako bat euskaraz hitz egingo dugula izango da.